


MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN (AHEK) 2017KO APIRILA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %2,8 jaitsi ziren 2017ko apirilean

2017ko lehen lau hiletan %0,9ko hazkundera

Eustaten arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2017ko apirilean %2,8ko urte arteko jaitsiera izan zuten Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Martxoaren aldean, salmentak %1,1 jaitsi ziren urtaro eraginik gabe.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Elikagaietan %3,2ko urte arteko jaitsiera salmentetan, eta gainerako produktuenetan %2,1ekoa.

Bizkaian %-3,0 salmentetan; Gipuzkoan %-2,6; Araban %-2,8.

2017ko lehen lauhilekoan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,9 gehitu, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, lan-egutegiko termino homogeneoetan, prezio finkoetan. Hil horietan, elikagaien salmentetan %+1,4; gainerakoenetan %+0,1.

Arabian, urteko lehen lauhileko salmentak %0,1 gehitu prezio finkoetan eta aurreko urteko aldi beraren aldean; Gipuzkoan %1,0; Bizkaian %1,2.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako langile kopurua %0,3 gehitu zen 2017ko apirilean martxoaren aldean, urtaro-eraginik gabe.

1. taula. Euskal AEko merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. 2017ko apirila

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-2,8	-1,1	0,9
Araba/Álava	-2,8	-2,3	0,1
Bizkaia	-3,0	-1,1	1,2
Gipuzkoa	-2,6	-0,6	1,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-3,2	-1,4	1,4
Beste produktuak	-2,1	-0,6	0,1
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	3,4	0,3	3,5

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Ohar metodologikoa: Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizeak azalera handietako merkataritzaren indizea ordeztzen du; hau egiteari 2016ko urrian utzi zitzaion, merkataritza koiunturaren hileko eboluzioa ez zuelako jasotzen, helburu horrekin sortua zelarik 90ko hamarraldian. Indize berrian, besteren artean erreferentzia-markoa berrikusi eta zabaldu egin da. Apirileko datuekin batera 2015eko urtariletiko serieak daude eskuragarri; urte hori da oinarri indizeak kalkulatzeko.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK))buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK) gaineko datu-bankua